


apirila | iraila  
april | may

57

# the balde



0€

zatiak  
fragments



# 57



## the balde

antsoain 1  
31014 iruñea  
t. +34 948 12 19 76  
f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea  
20115 astigarraga  
t. +34 943 44 44 22  
f. +34 943 33 60 66


www.thebalde.net  
info@thebalde.net

publi@thebalde.net  
m. +34 686 485 980

**publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:**  
manukleart  
+34 946 765 108 / +34 633 438 611  
bizkaia@thebalde.net

**harpidetzak / suscriptions:** goizeder anton  
**argitaratzailea / publisher:** eragin.com - komunikazioa eragin sl  
**editore / editor:** inigo martinez  
**zuzendaria / director:** koldo almandoz  
**diseinu burua / head of design:** martin etxauri  
**zuzendari komertziala / comercial director**  
**& publicitatea / publicity:** inigo martinez  
**diseinua / design:** martin etxauri, iker bereziartua, eneko etxeandia.  
**itzulpenak / translations:** smiley, 11 itzulpen.  
**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** arkaitz villar, uxeta labrit,  
agurtzane ortiz, myriam gartzia, julen biguri, oskar alegria,  
**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** the balde crew, luis beltza,  
oskar alegria, jorge salvador.  
**komikia / comic:** aitor brontxe.  
**harpidetza orria / subscription page:** nerea diego. usandizaga diseinu eskola.  
**azaleko irudia / cover image:** luis beltza  
**aurkibidea / summary:** uxeta labrit  
**inprimategia / printed at:** espacegrafic  
**lege gordailua / legal:** na-3244/01

**The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:**

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultur sailak diruz  
lagundutako aldizkaria**



Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:  
Imaginative, provocative and interesting works? send them to:  
[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)

**giza eskubideen zine jaialdia.**

Askok uste dutenaren kontra, zinemaldi honetan proiektatzen diren filmak ez dira soilik salaketa erraz eta sentimendu "oenegeroz" gainezka egiten duten filmak. Fikzioa, dokumentalak, iraupen laburreko filmak, animazioak,... molde ugariako film interesgarri apirilaren 8tik 15era.

[www.cineyderechoshumanos.com/2011](http://www.cineyderechoshumanos.com/2011)

**human rights cinema festival**

In spite of what many people think, the films shown at this festival are not only protest films or films full of "the best feelings". Fiction, documentaries, short films, cartoons... many interesting films from the 8th to the 15th of April.

[www.cineyderechoshumanos.com/2011](http://www.cineyderechoshumanos.com/2011)



TERROR FOR LUNCH...

**gatazka sukaldea**

Izen hori eman diote AEBtako Pittsburgh hirian ireki duten "takeaway" jatetxe ausartari. Bere menuaren berezitasuna: AEB-ekin gatazkan dauden herrialdeen janariak soilik eskaintzea. Gastronomía afganistarra, ipar korearra, venezolarra, iraniarra,... bertara joateko aukerarik ez baduzu bisitatu ezazu behintzat euren webgune interesgarria.

[www.conflict-kitchen.org](http://www.conflict-kitchen.org)

**conflict kitchen**

That's the name that's been given to a daring take-away restaurant in Pittsburgh, USA. What's different about its menu: it only offers food from countries that the USA is at war with. Afghan, North Korean, Venezuelan, Iranian gastronomy ... If you don't have the chance to go there, you can at least see their interesting website.

[www.conflict-kitchen.org](http://www.conflict-kitchen.org)



**break on stage**

Bilbon ospatuko da apirilaren bederatzigarrenean La Casillan. Munduko break dance talderik onenak (munduko txapeldun diren Jinjo Crew Hegokorearrak beste batzuen artean) bilduko dituen jaialdiak honez gero ez du aurkezpenik behar. Burua galduko duzu!

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)

**break on stage**

It's going to be held on the 9th of April at La Casilla in Bilbao. As the best break dance crews in the world are going to be at the festival (including the world champions, Jinjo Crew from South Korea) are going to be there, we don't need to say any more. You'll go crazy!

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)




**Ikaragarri  
gustatzen  
zait the way  
you talk  
to me  
maitia!**



**Iruñeko  
Hizkuntza  
Eskola  
Ofiziala**

- |             |              |             |
|-------------|--------------|-------------|
| • euskara   | • alemana    | • txinera   |
| • ingelesa  | • gaztelania | • japoniera |
| • frantsesa | • italiara   | • arabiera  |

KONPAINIA KALEA 6 - 31001  
<http://centros.educacion.navarra.es/eoip>  
948 20 63 43



**eragin.com**

diseinua, internet  
eta argitarapenak



#### leioako umore azoka

Beste klasiko bat. Herri bizkaitarreko antzokiak eta kaleak antzerki eta irribarrez betetzen dituen jaialdia. Bertoko eta kanpoko konpainien lan berri eta berritzaileak ikusteko aukera maiatzaren 12tik 15era.

[www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)

#### leioa humour festival

Another classic. This town in Bizkaia's festival fills the streets and theatres with laughter. You can see local and other companies' new and innovate works there from the 12th to the 15th of May.

[www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)



#### matchbox

Gisa hontako proiektuak ikusten ditugunean itxaropen guztia galdua ez dagoela sinisten dugu. Poxpolo kaxen formatua baliatuz, hamaika artisten lanak argitaratzen dituzte. Bilduma guztia nahi genuke gure apaletan, baina ale batzuk agorturik daudenez, sarean gozaten ditugu. Bai, badakigu... ez horregatik.

[www.matchbox.fr/](http://www.matchbox.fr/)

#### matchbox

When we see projects like this, we believe that not all hope has been lost. Many artists' work folded up into matchboxes. We'd love to have all the collection on our shelves. Some of them have sold out, but we can still enjoy them online. Yes, we know ... you're welcome.

[www.matchbox.fr/](http://www.matchbox.fr/)



#### parkett aldizkaria

"Museo txiki bat eta arte garaikide liburutegi handi bat". Esaldi honekin definitzen dute euren burua Zurich-en egiten den Parkett aldizkari arduradunek. 1984. urtetik gaur eguneraino kaleratu eta ekoiztu dutena bildu dute Montehermoson. Maiatzaren 22ra bitarte ikusgai artea erakutsi eta ekoiztu duen proiektua.

[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)

#### parkett magazine

"A small museum and a large contemporary library". That's how the people at Zurich in charge of Parkett magazine describe it. They've brought together everything they've published and produced at Montehermoso. You can see their project until the 22nd of May.

[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)

JA-  
MATCH-A-  
PA!!

¿A qué hora me lo  
enviáis?

Zer ordutan  
~~bidaltzen~~ bidaliko  
didazue?


Itzulpen eta zuzenketa  
zerbitzu profesionala

GAZTELANIA | EUSKARA  
INGELES | FRANTSESA | ALEMANA

**11itzulpen**

[www.11itzulpen.com](http://www.11itzulpen.com)

nontzeberri.com  
kultura sarean



gozatu  
euskaraz

beste bat!!

musika  
euskaraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.  
Gure jendareekin. Gure iritzia adierazi  
nahi dugunean, geure erara. Euskara  
gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa  
dugu. Lagunen artean, gure giroan,  
gure artean euskaraz.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



ife


Bizitza urbanoaren egunerokotasunaren anesthesiaren aurka sortu zen institutu berezi hau. Ingurumen urbanoaren gainean analisi kritikoa eta hiriko espazioen erabilera ludikoak garatzeko estrategiak garatzen ditu IFE-k. Ez duzuela ezer ulertu? Beno, sar zaitezke euren webgunean...

<http://instituteforfunctionalescapists.com>

ife

This special institute was created to fight against urban life's daily anaesthetics. IFE develops strategies for creating areas for amusement in cities and for the critical analysis of urban environments. You haven't understood a word? Ok, have a look at their website!

<http://instituteforfunctionalescapists.com>



## ARTISTEN SAFARI URBANOAK

**artista berrien leihaketa**

90 urte igaro dira lehendabiziko artista gazteen leihaketa antolatu zenetik. Artista garaikide belaunaldi ezberdinen erakuslehiu izan den leihaketa hau, denboraren iraganaren poderioz, arte biltegi izateaz gain gizarte eta historia gordailu ere izan da. Maiatzaren 14 bitarte Koldo Mitxelena ikusgai.

<http://kmk.gipuzkoakultura.net/>

**new artists**

90 years have gone by since the first young artists' competition was organized. This competition has been a show-place for many generations of contemporary artists and, over time, as well as being a storeroom for art, it has also protected our society and history. At Koldo Mitxelena until the 14th of May.

<http://kmk.gipuzkoakultura.net/>

**bizikleta safaria**

Suediako kaleetan barna ibiltzen ziren bizikletak jarraitzen eta aztertzen hasi ziren. Molde eta adin ezberdinekoak irudietan bildu, eta sailkatu zituzten. Bizikleta fauna migratzailea da ordea eta tarteka migrazio horiei jarraiki Europako bazter esberdinetan ere antolatzen dituzte safariak.

<http://bicyclesafari.blogspot.com>

**bicycle safari**

They started following and studying the bicycles on the streets of Sweden. They brought together and classified different types and ages of bicycles. Bicycles are migratory fauna and sometimes organize safaris in different parts of Europe as part of their migrations.

<http://bicyclesafari.blogspot.com>



# ARTISTA BERRIEN XLIV. LEHIAKETA

2011



ERAKUSTARETOA  
2011ko martxoaren 17tik maiatzaren 14ra

## Jon Cazenave Herri ixilean

**Ganbara**  
Apirilaren 6tik Maiatzaren 7ra



trebatutako  
**Diseinugile grafiko**  
bat behar dugu

**eragin.com**

diseinua, internet eta argitarapenak



bidali zure  
portfolio eta cv-a  
info@eragin.com-era  
eta kontaguzu  
zergatik nahi  
duzun gurekin  
lan egin.

X: 120,05 mm  
Y: 91,47 mm

#### beleza malandra ateneoa

Beleza Malandra Ateneo Kulturala aisialdi, kultura eta entretenimendu gune bat da. Bermeoko alde zaharrea, Erremedio kalean, kokatuta egitasmo interesgarriekin ireki ditu bere ateak. Ondorengo hilabeteetan, besteak beste, NCC, Miss Chain and the Broken Heels eta Toyotas bezelako taldeen kontzertuak, Amaia Linares' poetaren Poesia Kaxan ikuskizina, ipuin kontalariak, eta abar luze bat programatu dituzte.

#### beleza malandra ateneoa

Beleza Malandra Ateneo Kulturala is a space for leisure, culture and entertainment. In Erremedio Street, Bermeo, it has opened its doors with some very interesting proposals. Amongst others, over the next few months NCC, Miss Chain and the Broken Heels and Toyotas will be playing concerts there; the poet Amaia Linares' Poetry Box will be held there; there will be story tellers; and many other events too.



#### malandain ballet

Maiatzak 5 eta 6an Biarritz-eko balleta etxera itzuli eta Europa osoan dantzaten ari diren Romeo & Juliette obraren 3 emanaldi eskainiko ditu. Aukera polita, obra klasiko bat ballet garaikidean dantzatua ikusteko.

[www.malandainballet.com](http://www.malandainballet.com)

#### malandain ballet

After performing all over Europe, Biarritz Ballet returns home the 5th and 6th of may with Romeo & Juliette, which it will perform three times. It's a great chance to see a classic performed in a contemporary way.

[www.malandainballet.com](http://www.malandainballet.com)

#### makala bira

The balde party ugaritan dantzan eta izerditan jarri gaituen Disko Jartzaile handiak bira antolatu du Europako klub ezberdinetan. Udaberriko gau batean hemen, hurrena Berlinen. Udan ordea Zarautzko olatuetan dantzan ikusiko duzue.

[www.myspace.com/djmakala](http://www.myspace.com/djmakala)

#### makala bira


The great DJ, who's so often got us up dancing at The Balde parties, has organized a tour of clubs around Europe. One spring night here, the next one in Berlin. In the summer, though, we'll see him dancing on the waves at Zarautz.

[www.myspace.com/djmakala](http://www.myspace.com/djmakala)



MALAKALANDRA!!

# Heldu literaturari



## AZKEN TRANBIAREN ITZALA

J. I. Basterretxea

1938ko uztailaren 30ean, faxistek Bilbo hartu zutenetik urtebetera, hiriburutik hurbil den herri batean, puzt egingo dute agintari frankisten autoak eta tranbiatik jaitsi den sendi apalak ...

**elkar** [www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

restaurante  
**Urepel**  
jaletxea

Salamanca pasealekua 3, 20003 Donostia  
[www.urepel.net](http://www.urepel.net) - 943 42 40 40

ATSEDEN BILA?  
LOOKING FOR PEACE?

harría

[www.salazgc.com](http://www.salazgc.com)  
34 943 140 143 E. info@salazgc.com

H. Fiske Deuna 25 · Getaria Gipuzkoa

no comment

marga intxauspe • san flancisco kalea, donostia.



# artearen historia minuskuletan

artea keinuak dira eta artistarik onena xantza

# history of art in small letter


art is composed by gestures and the best artist is random



gustave courbet



luis buñuel



pablo picasso



johannes vermeer



francisco de zurbarán



eduardo chillida



andy warhol



vincent van gogh



georges braque



amedeo modigliani



marcel duchamp



man ray



diego velazquez



miguel angel buonarroti



victor erice



joan miró



keith haring



piet mondrian



alexander calder



marcel proust



richard serra



jorge oteiza



alfred hitchcock



wassily kandinsky



fra angelico



constantin brancusi

# metal maitaleak

Zertan dabil tipo hori? Zeren bila dabil? Zergatik? Askotan egin diogu galdera hori gure buruari. Erantzun baten bila Francisco Javier Mata Amaduz-ekin hitz egin dugu, Espainiako Metal Detekzioaren Defentsarako Elkartearen presidentea.

**Ezagutzen ez dugunontzat, metal detekzioa altxorraren bilaketa baten moduko jolasa da. Ideia horrek badu zentzurik ala oker gabiltza?**

Ez du antza handirik errealitatearekin. Afizio honen inguruan dagoen beste topiko bat da. Altxor bakarra, gizakiak betidanik ezezagunaren aurrean izan duen atrakzioa da. Praktikan, bakarrik edo lagunekin eta naturan egiten den ariketa arina da. Detekzioak, zer topatuko duzun ez jakiteak eskaintzen duen emozioa eskaintzen du.

**Noiz eta nola sortu zen afizio hau? Nola bihurtu zen milaka pertsonen denbora-pasa?**

AEBetan sortu zen, 2. Mundu Gerra amaitu zenean. Garai hartan, ejertzitoak minak lokalizatzeko milaka metal detektatzaile zituen. Militarrek ezagutzen zuten detektatzaileen balioa metalezko gauzak topatzeko, eta denbora-pasa gisa erabiltzen hasi ziren. Modu horretan sartu ziren detektatzaileak bizitza zibilean. Espainian 70eko hamarkadako erdialdean hasi zen. Ziurrenik Morón de la Frontera edo Rotako AEBetako basetako soldaduek ekarri zuten.

**Neurri edo lege berezirik esistitzen al da metal detektatzaileak erabiltzeko?**

Autonomia bakoitzak bere legeak ditu. Guztiek debekatzen dute, ordea, haren erabilera gune arkeologiko edo historikoetan. Denbora-pasa honen neurri edo beharrezkoa den gauza bakarra, modu sanoan eta legeak errespetatuz ongi pasatzeko aldartea izatea da.

**Zer sentitzen du metal detekzio zale batek zerbait interesgarria topatzen duenean?**

Unerik zirrargarriena ez da zerbait aurkitzen den unea baizik eta detekzio tresnak seinalea ematen duenean eta zer topatu dugun oraindik ez dakigunean. Ezbai une horretan, tentsioa, adrenalina eta urduritasunak gure gorputz osoa zeharkatzen du. Seinalea piztu duen hori zer izango den jakiteko irrika eta plazer eta inpazientzia sentimenduak harrapatzen zaitu. Denbora-pasa gutxik eskaintzen du azken momentura arte halako misterio sentsazioirik. Topatutako pieza ikertzen eta aztertzen sentsazio hori luzatu daiteke, gainera. Gerra garaiko balazorro bat topatzeak mila galdera ekar ditzake: zer bandotakoa zen, fabrikazio data, erabilitako arma... Metal detektatzaile bat, esku egokietan, kultura iturri bat izan daiteke.

**Zer topa genezake metal detektatzaile batekin?**

Metala duen edozein gauza. Hartz postizoetatik edo meteoritoetatik hasi, eta hegazkin oso bat topatzera ere iritsi dira metal detektatzaileak.

**Metal detektatzaileek aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuak egin dituzte, baina horren inguruan ere badago polemika bat...**

Ez da egoera erraza. Espainian dauden lege ezberdinek ez dute aurkikuntza arkeologikoen onarpena errazten. Kasualitatez metal detektatzaile batekin aztarna arkeologiko bat aurkitzea arazo bihur daiteke aurkitzailearentzat. Beste edozein modutan topatuz gero, ordea, ez da ezer gertatzen. Administrazioak eta arkeologoek diote zerbait ateratzeko lurra zulo bat egitea kontestua apurtzea dela, eta, aztarnen kasuan, bueltarik ez duen galera dela. Baina hori hala izateko, lur sail hori ukitu gabe egon beharko litzateke denbora luzez, eta gu behin eta berriro eraldatzen diren nekazal guneeetan edo hondartzetan aritzen gara; gure tresnek, gainera, 25-30 zentimetroko sakoneran soilik detektatzen dute metala.

**Lehiaketak esistitzen al dira? Nolakoak dira?**

10 urte daramagu txapelketak antolatzen. Hainbat mota daude. Lur sail batean ezkutatzen diren metalezko zatiak topatzean datza modalitateetako bat. Beste aukera bat, "deskutsadura" lehiaketak dira. Txapelketa mota horretan, ahalik eta txatarra pisu gehien topatzen duenak irabazten du. Lehiaketa zail eta teknikoena "ikuskapena" izenekoa da. Modalitate horretan, lurperatutako metal zatiak aurkitzeaz gain, lurretik atera gabe detektatzaileak ematen duen seinaleagatik zer metal klase den asmatu behar da.

**Zein da Espainiako Metal Detektatzaileen elkarteak egiten duen lana?**

Gure denbora-pasa ongi neurtzen duen legedi bat adostea, gaizki- ulertuak saihestu eta salaketekin eta isunekin amaitzea. Ez dugu diruagatik egiten, ez dugu aztarna arkeologikorik ustiatzen ez natura suntsitzen. Horretan dihardutenak ez dira zaleak, lapurrak baizik, eta gure espirituaren aurkakoak dira. Gure zaletasuna maitatu, bultzatu eta modu baikorrean ezagutzera ematen dugu.



## detection lovers

What is that guy doing? What is he trying to find? Why? We asked that question ourselves many times. Looking for answers we talked to Francisco Javier Mata Adamuz, president of the Spanish Metal Detection Defense Association.

**For those of us who don't know about it, metal detecting is a fun way of looking for treasure. Is that the right idea, or are we wrong about it?**

It doesn't have much to do with reality. That's just a cliché about this hobby. The only real treasure is the attraction humans have always had towards the unknown. In fact, it's exercise that you do in natural surroundings either by yourself or with company. Detecting gives you the emotion of finding things you don't know you'll find.

**How and when did this hobby start? How did it become a pass time for thousands of people?**

It first started in the States at the end of the Second World War. At that time, the army had thousands of metal detectors for finding mines. Soldiers knew they could be used for finding metallic objects and started to use them as a pass time. That's how detecting became popular in the civilian world too. It started in Spain in the mid-70's. The US soldiers at the bases as Morón de la Frontera and Rota probably introduced it.

**Are there special laws or norms about how to use metal detectors?**

Each autonomous community has its own laws. However, they all forbid using them in archaeological and historical sites. This pass time's only compulsory norm is to carry it out in a fair, legal manner.

**What does a metal detector feel when he/she finds something interesting?**

The most exciting moment isn't when you find something, it's when the metal detector starts beeping and you still don't know what you're going to find. At that moment of doubt, tension, adrenaline and nerves go all through your body. You're taken over by the desire and impatience to know what the detector's signal means. Very few pass times offer that sensation of mystery up until the very last moment. What's more, that sensation can be prolonged by studying and investigating and piece you've found. Finding an empty bullet from wartime can bring up thousands of questions: Which side were they on? The date of manufacture?

The weapon used? In the right hands, metal detectors can be a source of culture.

**What can you find with a metal detector?**

Anything with metal in it. Metal detectors have found everything from false teeth and meteorites to whole aeroplanes.

**Metal detectors can also make important archaeological discoveries, although that is also highly controversial.**

It isn't an easy situation. The various different laws in Spain don't make it easy for archaeological discoveries to be accepted. Coming across archaeological remains by chance can be a problem for metal detectors. If they come across them any other way, though, this is no problem whatsoever. Public administration and archaeologists say that making a hole in the ground to uncover things, if they turn out to be archaeological remains, can cause damage. But for that to happen, that area of land must have been untouched for a long period, and we are always pointing out that we only look in areas which have been used for agriculture and on beaches. What's more, our devices only look down 25-30 centimetres.


**Are there competitions? What are they like?**

We've been organizing championships for the last ten years. There are many different types. One type is when we hide bits of metal in an area of land. Another type is "decontamination". In this type of championship, whoever finds the largest amount of scrap metal wins. The hardest, most technical competition is the "inspection". In this one, as well as finding metal you have to tell what type of metal it is before digging it up and only using the device's signal.

**What does the Spanish Metal Detectors' Society do?**

Our work is to agree on legislation about our pass time, avoid misunderstandings and minimise complaints and fines. We are a non-profit making organization, we do not touch archaeological remains or damage nature. People who do such things are not detectors, they are thieves, and we are completely against that. We take care of our hobby, promote it and make it better known in a positive way.

ego gutxiago /  
lantalde gehiago



less ego /  
more teamwork

# the balde.net

atzo, gaur eta bihar **klik bakarrera!**  
yesterday, today and tomorrow in **just one click!**


the balde zenbakiak oso-osorik ikusteko aukera izateaz gain egunero topatuko duzu proposamen berri eta interesgarriak.

Arteziak sail berria gainera parte hartu eta zure txokoa izan dezakezu.

Check all previous the balde numbers.

New contents everyday.

Be a part of the balde in the new Arteziak project.



**Entzun! disko-liburua jada salgai!** 15€

**Edizio mugatua.** Egin zaitetz harpide edo egizu zure erreserba entzun@entzun.com-en edo 948121976 telefonora deituz

**BILDUMA 2010**

01 ZEAMAYS	Zure pasaduro jarraitzaileak	02'46
02 SPLIT 77		31'05'01
03 SURFIN KAOS	Berriz ere	07'32
04 SANTIAGO DEGADO Y LOS RUNAWAY LOVERS	Johnny Ramone	02'49
05 LOS GALERNA	Ciclos	03'29
06 LOBO ELÉCTRICO	Rayo cósmico	02'46
07 ELECTRIC RIDERS	Forward to abyss	04'33
08 ATOM RHUMBA	Cynic skin	02'39
09 XARMA	Zilberhatsa	04'26
POTEMKIN 10	Suge dantza	03'27
ELFO NEGRO 11	Rucknang on the road	03'17
MANTISA 12	Enlali erranen erdian	02'00
BUNFADA SOUND 13	Mixta	04'21
ESNE BELTZAI 4	Hommes et femmes de couleur	03'26
GOZATEGI 15	Jon Uein	02'52
SOKAIDE 16	Ursatetik kanpo	04'28
GORGIO BASSMATTI 17	Bizitza erdia	02'40



## split 77 egunsentia noiz helduko zain waiting for daybreak

Esana duzu Split 77rentzat euskal kulturaren erreferentzietatik ihes egitea dela zuen indar mugiarazleetako bat. Euskal musikagintzaren merkatua txikia da, hartatik lerrotik aldentzen bazara...

**Aritz Aranburu** (ahotsa eta gitarra): Inguruan dauzkagun erreferentzietatik aldentzen gara, taldearentzat osasungarria delakoan. Guretzat garrantzitsua da inguruan dauzkagun gauzak ez errepikatzea. Musikaren munduan dena dago asmatuta, jendeak ez ditu gauza berriak egiten, gu saiitzen gara gure hizkuntza propioa bilatzen. Horretarako, inguruan dituzun erreferentzietatik aldentu behar duzu, are gehiago euskarazko musika egiten baduzu, gauza berriak egitea, euskal musikarentzat ere, onuragarria delakoan. Guri askotan esan digute kanpoko musika egiten dugula, uste dut ez dela guztiz egia, musikak ez baitauka mugarik, are gehiago, kanpoko mugimendu horiek barneratzen edo zureganatzen badituzu. Hor daude hainbat talde euskaldun heavy-a egiten dutenak, adibidez. Hori ez da txarra, kanpoko mugimendu horiei bide berriak irekitzen badizkiezu, behintzat.

**Esperimentaziorako duzuen joera nabarmena da.**

**A.A.:** Izan daiteke. Hala ere, gure kasuan, ez da gauza kontziente bat. Lokalean ditugun baliabideak erabiliz sortzen dugu, eta printzipioz zerbait konplexua ematen badu ere, nahiko gauza sinplea eta intuitiboa da. Horregatik jarri diogu izen homonimoa diskoari (*Split 77*, Noizpop, 2010), sentitu genuelako gure diskurtsoa, gure hatsa, hor zegoela.

**Disko berrian badira abesti egokiak, zuen ohiko publikoari begira, eta beste batzuk pertsonalagoak.**

**A.A.:** Badira, alde batetik, hobeto funtzionatzen duten kantak, eta, bestetik, egin nahi dugunetik gertuago daudenak. Azken finean, guk ez daukagu ezer galtzerik, inoiz ez dugu izan. Are gehiago, musika industria egun dagoen bezala, uste dut errazagoa eta interesgarriagoa dela zenbait lotura haustea eta apustu pertsonalagoak egitea. Oraingo hau, musika taldeek euren etorkizunaren alde egiteko unea da, diskoetxe eta industria ereduetatik aldentzeko, eredu horrek gutxiarazten baitu musika taldeen lana. Lotura horiek hautsita, taldeak egindako inbertsioa % 100ean itzultzeko aukera dago, eta, bestetik, taldeak nahi duen bidea jorra dezake. Esfortzua, lana eta erabilitako denbora eta egindako inbertsioa taldera itzultzeko modu bakarra da; diskoetxeen esku egongo balitz, ez litzateke horrela izango.

**Eta nola eragin diote zuen musikari erreproduktzio modu berriek?**

**A.A.:** Internetek on egin dio musikaren hedapenari, oso bide interesantea da alde horretatik. Gero, ez badituzu 200 disko saltzen saretik jaitsi dituztelako... Galera ez da hain handia. Nik uste, euskal musikari ororentzat, euren musikaren zabalkundeari dagokionez, onuragarria dela. Ez dakit ba ote dagoen Euskal Herrian musikaririk onuragarria suertatuko ez zaionik... agian Kepa Junkera. Hala ere, guk esfortzu hori eskatzen dugu, ez dakit gutxi ala gehiago, baina gure lanak badu baliorik.

**Ingelesez dituzue pare bat abesti, horra hor afera, ingelesa erabiltzearena...**

**A.A.:** Iskanderrek abesten ditu, erosoago sentitzen delako nik uste. Nik argi daukat euskaraz abestu nahi dudala, hori baita nire hizkuntza, baina horren atzean ez dago bestelako irakurketarik.

**Ez dut uste rocka eta elektronika nahasten duen taldea zaretela esateak erabat definitzen zaituztenik.**

**A.A.:** Zuzenekoetan argi ikusten da gure kutsu rockero hori, rockaren energia eta magia hori gustuko dugulako. Baina, badago beste alde bat, batez ere abestiak sortzeko orduan. Hori da gure benetako hizkuntza, sekuentziak eta samplerrak erabiltzea, baina zuzenekoetan nabariagoa den kutsu rockeroa, espiritu hori barneratzea ere bai. Nahiko enkorsetaturik egon beharko luke tresneria elektronikoagatik, rockaren energia edo magia izatea ere, gu ere hizkuntza horretan eroso sentitzen garelako.

You've said that one of Split77's most incisive strengths is to stay away from Basque Culture references. The market for Basque music is small, if you stray too far...

**Aritz Aranburu** (guitar and vocals): We avoid references from our surrounding environment because we think it's healthy for the band. It's important for us not to repeat or mimic those references. There's nothing new gonna be invented in the world of music, no-one's coming up with anything new, you can't, it's all been done before. What we try is to find our own voice, so to say. In order to do that, you need to clear away all these local references, even more so if you sing in Basque, the idea being that trying new stuff is beneficial, for Basque musicians too. People often tell us the music we play is "not from here", but I don't think that's totally true because music cannot be defined by borders, particularly if you have interiorised these other musical movements and genres not typically associated with our surroundings here and made them your own. Here you have a lot of bands playing Basque heavy metal. That's not a bad thing at all, at least if you open up new doors for those foreign bands here.

**You have a clear tendency to experiment.**

**A.A.:** Possibly. But it's not a conscious thing with us. We create our music with all the tools available to us in our rehearsal room, and though it may seem quite complex, it's really rather simple and intuitive. That's why we named the record eponymously (*Split 77*, Noizpop, 2010), because we felt the record really represents us and where we are at now, if you like.

**On the new record there are songs that the people that normally listen to you will quickly get, to put it one way, and there are others that are probably more personal.**

**A.A.:** On the one hand, there are songs that are more readily accessible and, on the other, there are those that are closer to what we want to do. At the end of the day, we really have nothing to lose, we never have had. What's more, with the music industry in the state it is currently in, it's easier and more interesting to cut certain ties and take a gamble on a more personal approach to things. Now is the time for bands to take their future into their own hands, to begin to move away from the record label and industry set-up because this set-up belittles bands' work. Once those shackles are gone, a band can regain 100% of any investment they make, and at the same time the band can also create in whatever way it wants. It's the only way for a band to get back all their time, effort, work and investment; if it were in the hands of a record label, this wouldn't happen.

**And what effects have these new means of reproduction had on your music?**

**A.A.:** Internet has been good for the distribution of music, it's really interesting in that respect. And if you don't sell 200 records because they have been downloaded for free... well, the loss is not that big. I think that for all Basque musicians, regarding the distribution of their music, it's certainly advantageous. I don't know if there is a single Basque musician it doesn't benefit... maybe Kepa Junkera. Anyway, I don't know if it's a little or a lot, but our work has its value.

**You sing a couple of your songs in English, the eternal debate about singing in English once again raises its ugly head...**


**A.A.:** Iskander sings them both because I think he feels more comfortable that way. I know I sing in Basque because it's my language, but that's all there is to it, nothing else.

**I don't think that calling you a band that mixes rock and electronica really defines you properly.**

**A.A.:** Our rock side is very evident in our live shows because we love the magic and energy of rock. But there is another side to us, especially when we are writing material. That's our real language, using samplers and sequencers, but as I have said the rocker part comes out more on stage. Our music should probably be more cosseted by the use of electronic equipment but that's where the magic and energy or rock also becomes part of our language, because we feel comfortable in those parameters as well.

Jack Whitek, White Stripes desegin badu honelako diskoak egiteko, pozten naiz. 67 urte dituen Wanda Jaksonek bere laguntza izan du disko hau grabatzeko, eta emaitza paregabea da. Rock n´roll eztanda, luxuzko banda baten babesean, eta generoaren klasikoen bertsioek osatzen dutena. Elvis Presleyren neskalagun izan zenak gerria oraindik sutan duela erakusten duen diskoa.

If Jack White has broken up the White Stripes to make records like this, I'm certainly not going to complain. He's helped 67 year-old Wanda Jackson record this album and the results are astounding. An explosion of Rock 'n' Roll, backed by a band made up of la crème de la crème, and versions of the greatest classics of the genre. The one-time girlfriend of Elvis Presley is still on fire and this album is the proof.



**Wanda Jackson**  
The party ain't over  
Third Man / Dro 2011



**James Blake**  
James Blake  
R+S Records. A&M

Duela urte batzuk Burialek, proposamen ilun baina dotore bati esker, modan jarri zuen dubstep eszena. James Blakek bide bera landu du nahiz eta honen kasuan eguzkiak gehiago argitzen duen bere logela. Ahots jokoan erabilera ezberdinei esker dubstep – soul lan sendoa argitaratu du. Modernoa izatea ez da beti aspergarria izatea.

A few years back, Burial, with his dark and elegant songs, made the dubstep scene quite hip. James Blake follows in Burial's footsteps but there is a bit more sunshine peeking through the music here. His different use of voices has enabled him to release a strong record that gathers together soul – dubstep influences. Modernity doesn't always mean boredom.

PJ Harveyren zortzigarren estudioko lana bere ibilbidean argitaratu duen politikoa da. Irak eta Afganistango gudak hartu ditu oinarritzat, eta, besteak beste, Dali eta Goyaren margolanak erabili ditu abestiak sortzeko. Bazen garaia indie-ak joera politikoa lantzeko. Eta "The glorious land" bezalako kantu poetikoei umorea gaineratuta, askoz hobe. Lan erraldoia.

This is the eighth studio album of PJ Harvey's career and it's her most political to date. She's used Iraq and Afghanistan as the basis for the record and has written the songs using paintings by the likes of Dali and Goya. It was about time that indie got a bit political. When she adds humour to poetical songs like "The glorious land", well, it just gets even better. A giant of a record. Huge.



**PJ Harvey**  
Let England Shake  
Island 2011



**Wildcookie**  
Cookie dough  
Tru Thoughts

Suediatik dator notizia. Freddie Cruger ekoizlearen eta Anthony Mills abeslariaren proiektu berriaren lehen diskoa da hemen erakusten dizuguna. Jamaika eta Afrikako doinuen eragina erakusten duen Hip hop, soul eta elektronika nahasketa dakar. Igandeetan mendira joan gabe gailurra aurkitzen lagunduko dizu "Heroine" abestiak. Edo zerua.


This little item is fresh in from Sweden. Producer Freddie Cruger and singer Anthony Mills have come together and this is the first result. A well-crafted blend of Hip hop, soul and electronica with the emphasis placed on Jamaican and African melodies. You don't need to do any Sunday morning hill-walking to hit the mountain highs of the songs on "Heroine". The sky is the limit.

Ainara Legardonen disko berriaren intentsitatea "Thirsty" bezalako kantuek erakusten dute. Lan gogorra da, amorrut betea datorrena, eta Legardonen pertsonalitate handia erakusten duena. "You cave me" eta "Evil eyes" kantuetan erabiltzen duen gitarra eta ahots hauskorak barruraino sartuko zaizkizu. Diskoa handitzen laguntzen duen giro berezia lortzen du "Before waking up" bezalakoetan. Indarberritzen zaituen txutea da disko hau.

The intensity of Ainara Legardon's new record shines through on songs like "Thirsty". It's a difficult record, rabid anger on show in places, and it showcases Legardon's great personality. The guitar and fragile voice on "You cave me" and "Evil eyes" will seep deep into you. Songs such as "Before waking up" swirl in a special atmosphere that really adds to the record. This album is like a much-needed shot in the arm to get you back up and biting again.



**Ainara Legardon**  
We once wished  
Aloud music 2011



**Za!**  
'Megaflow'  
Acuarela

Kataluniatik dator Za! bikotea. Ez dute ezer berria asmatu, baina aldi berean dena asmatu dute. Proiektu esperimentalek askotan erakusten duten joera ulerkaitzari aurre egin, eta bere buruaz barre eginda disko ezberdin eta interesgarria sortu dute, "Macumba o muerte" diskoaren jarraipena. Eguna alaituko dizun lan dibertigarria osatuta, estilo askotako irabiakia sortu dute.

Duo Za! hail from Catalonia. They haven't come up with anything new, but at the same time they have innovatively hit the nail on the head. They have managed to overcome the incomprehensible attitude blatantly present on many experimental records, and by taking the mick out of themselves, have succeeded in producing a different and interesting follow up to their previous "Macumba o muerte". This will brighten your day, a rare concoction of lots of different styles.

## maluca mala gaiztoak hobek direlako

Nathalie Yepez. 29 urte. Lehen belaunaldiko newyorktarra. Bronx-en jaioa dominikar sendi batean. Washington Heights eta East Village auzoetan hazi zen. Bere musika deskribatzerakoan “ghetto-techno, latin-dance, hip-hop, rave music” hitzak batzen ditu. Mix berezi honek zeresan ugari eman du -Lady Gagak adibidez, bere “Telephone” bideoan Malucak “El Tigraso” bideoklipan erabiltzen dituen rulo-laten ideia kopiatu zuelako. Hau da bere izenaren atzean dagoen istorioa: “beti izan naiz *Maluca*, espainieraz eroa esan nahi du. Haurra nintzenean osaba batek jarri zidan ezizena zen oso bihurria nintzelako. *Mala* zatia nik gehitu nion musika munduan buru belarri sartu behar nintzela erabaki nuenean, gaiztoa esan nahi du”. Maluca Mala kanta klaseak hartzen hasi eta mikrofono ireki eta poesia slam-etara joaten hasi zen. Hasera hartan, eskenatokiak beldurra ematen zion eta trebatzeko, lagun baten rock bandan, Bowery Riots-en, hasi zen jotzen. Amanda Blank kantariarekin ere biran joan zen dantzari eta koruko partaide gisa bakarrik hegan egin zezakeela erabaki zuen arte. “Badakizu, gauzak gerta daitezzen zuk bultzatu behar dituzu; ezin zara eseri eta jendeak zure lana egin dezan itxaron”. Orainxe, proiektu ezberdinetan dago murgilduta. “Wepasodes” izenarekin bataiatu duen proiektua filmatzen ari da bestek beste. Lehen atalean bazkari bonoa eskuratzeko egin behar izan duena grabatu du. “Robyn kantari suediarrek AEBtan egin duen bira irekitzen egon naiz, baina ez dudanez kontraturik inongo konpainiarekin, bira horrek milaka dolarreko zorra utzi dit. Oso garestia izan daiteke atariko lana egitea ere. Ordaindu beharrekoa ordaindu zidaten, baina ez zen iristen ekipo alokairua, DJ-a, orrazkera, makilajea eta nire jantziak ordaintzeko. Garesti atera da, baina merezi izan du. “Wepasode”-ak? Kontaiguzu zerbait gehiago horren inguruan. “Nire web bideoak dira. Webgunean eta youtuben zintzilikatzen ditut. Malucaren bizitzaren egun bat kontatzea da ideia, telebista publikoan ematen dituzten programetan oinarritzen da. Ez da reality bat, surreality bat da. *Wepa* hitzak espainiarrez *woo-hoo!* edo esan nahi du! edo *Hoorah!* esklamazio bat da. Ez nituen webisodes gisa bataiatu nahi, badakizu zer diodan ez? Dominikarra naiz, ez naiz mozten, ozenak gara, apasionatuak, eta ez eskenatokian soilik.”

Maluca Mala ezagutu genuenetik ez zaizkigu neska zintzoak gustatzen.

## bad is better

Nathalie Yepez. 29-year-old first generation New Yorker. Born to Dominican parents in the Bronx. Grew up in Washington Heights and the East Village. She describes her music as “ghetto-techno, latin-dance, hip-hop, rave music”. This musical mix has not gone unnoticed — especially by Lady Gaga, whose beer-cans-as-rollers look in the video for “Telephone” appears to have been inspired by Mala’s headgear in her video for “El Tigraso”. This is the story behind her name. “I’ve always been *Maluca*, which means crazy in Spanish. It’s a nickname my uncle gave me as a child because I was so mischievous. I added the *Mala* part, which means bad, when I decided to really go for it in the music business”. Maluca Mala started taking vocal lessons and going to open mike nights and poetry slams. At the beginning she was afraid of the stage so she joined a friend’s rock band, the Bowery Riots. She also toured with Amanda Blank as a back up dancer and singer until she felt she could fly alone. “You know, you have to make stuff happen for yourself; you can’t just sit and wait for people to make it happen for you”. Right now, she’s involved in different projects. She is filming what she calls “Wepasodes”. In the first chapter she’s applying for food stamps. “I just finished opening for Swedish singer Robyn in her U.S. tour, and since I’m not signed to a record label, that tour ended up putting me thousands of dollars in debt. It can be really expensive for an opening act. I got paid a performance fee, but it didn’t cover the costs for renting equipment, DJ, hair and makeup, my outfits. It all adds up, but it was well worth it”. “Wepasode”? Tell us more about it. They are my web videos that I’m playing on my site and on YouTube. It’s a day in the life of Maluca inspired by public access TV shows. It’s not reality TV, it’s more like surreality TV. *Wepa* is like the Spanish word for *woo-hoo!* or *hoorah!* It’s an exclamation. I wasn’t going to call them plain “webisodes”, know what I mean? I’m dominican, and we don’t hold back, we are loud, passionate and not only in the stage.”

Since we met Maluca Mala, we don’t like good girls anymore.





EDIZIOAK ETA INPRESIOAK OROKORREAN  
EDITING AND PRINTING IN GENERAL

Inprimakiak, katalogoak, liburuak, liburuskak, aldizkariak, aurreinpresioa  
Forms, catalogues, books, brochures, magazines, preprinting



Pol. Ind. C/G, Nº 11 · 31192 Mutilva Baja · Navarra · Spain  
Telf. 34 948 23 93 36 · Fax. 34 948 23 82 16  
www.espacegrafic.com  
e-mail: info@espacegrafic.com



ZAMLEKURRI Tolosa, Mendia Herria  
 San Esteban 8 31780 Mera 948625403; P101001 Bidea 17. 0178 Izara Donostia 943224848

**New**  
**the balde**  
t-shirts

the balde kamiseta berriek joko handia emango dizute!  
buy one before they are gone!

total  
**15€**  
erengatik!

TOTAL MODEL  
(letra fukia/magenta letters)

TOTAL MODEL  
(letra horiak/yellow letters)

BALDESTORMING MODEL  
(kamiseta granate/granet t-shirt)

BALDESTORMING MODEL  
(kamiseta zuria/white t-shirt)

neska / girl

S

M

L

mutila / boy

M

L

XL

buy them at  
**www.thebalde.net**  
webgunean erosi itzazu

beltza scene



*Ez zait argazkilaritza interesatzen, bizitza baizik.  
I'm not interested in photography, I'm interested in life.*

Henry Cartier-Bresson



13 lágrimas



alejo DDAA



chaos en france



chica argentina



delorean



fotógrafo



hakan karsak + miraz bezar [actor + director de cine kurdos]



herminio



homeless

Tokatan biraka dagoen biniloa aldatzera doanean ikusten dizkiogu, mostradoreko kaxoi batean gordetzen dituen dozenaka argazki karrete. Luis Beltzak liburu eta argazki bildumak erakutsi eta pasioz hitz egiten du kale argazkilaritzaz eta kamara tradizioaletaz. Banan bana aipatzen ditu bilduma batetan gordetako dozenaka argazkiei jarritako izenburuak eta argazki bakoitza ateratzerakoan gertatutako bizipenak. Hor dago aldea. Ez dira argazkiak soilik. Bizitza dira.

Beltza scene izeneko erretratu bilduma honetan Beltza Records dendara hurbildu den jendea da protagonista. Lagunak, ezezagunak, despistatuak eta etsaiak. Desagertzeaz dauden giza eskalara eginiko guneetan biltzen den jendearen erretratuak. Beltza Records ez delako denda bat, edonora garraiatu zaitzakeen kromlech bat da.



joseba tapia



kiko amat



las chicas del pastel



las oblicuas



matti



peter coad [pintor australiano]

We see them when we go to change the record on the turntable, dozens of photographic films which he keeps in a shop-counter box. Luis Beltza shows us his photo collections and books and talks with passion about street photography and traditional cameras. He talks about the collections one by one, about the titles of each photo and the experiences associated with each one. That's the difference. They aren't just photos. They're life. In this collections of portraits, known as Beltza scene, the main characters are the people who go to the Beltza Records shop. Friends, strangers, people who are lost and enemies. Portraits of people who get together in places on a human scale which is about to disappear. Because Beltza Records isn't a shop, it's a cromlech that could be anywhere.



